

Itsasoko autopistak

Bilbo eta Flandesko Zeebrugge-ko portuak elkarrekin lotzen dituen lehenengo itsasoko autopista abian da dagoeneko. Astero joan-etorriko hiru zerbitzu eskaintzen ditu. Ekimen pribatu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko eta Flandeseko Gobernuen babes du. Egunero Biriaturtik igarotzen diren ibilgailu pisutsuen %6a errepideetatik kentzea ahalbidetuko du eta 100.000 kamioi inguru izango dira urtero zerbitzu hori erabiliko dutenak. Gobernuak argudiatzen dute autopista horrekin garraio "jasangarriagoa, segurua- goa eta eraginkorragoa" nahi dutela. Hiru, euskal garraiolaria autonomoen sindikatua, ez dator bat, ordea, iritzi horrekin. Proiektuaren jasangarritasuna eta eraginkortasuna zalantzan jartzen dituzte. Orain, kolapsoa Bilbora igaroko dela esaten dute. Autopista horretatik kanpo geratuko direlakoan daude, gainera. Ontzi-enpresa handientzat eta merkantzien garraioko enpresa pribatuentzat sortutakoa dela argudiatzen dute, eta aukera berri horrekin enpresa horien kostu soziolaboralak gutxituko direla. Testuinguru horretan, garraiolaria autonomoen etorkizuna ikusteke dago. Izan ere, erakunde publikoek enpresa-kontzentrazioaren alde egiten dute, eta ondorioz enpresa autonomo ugari ixtera behartuko dituzte. Ekimen horrek, Hiruren aburuz, gutxi batzuen interes ekonomikoari erantzuten die eta horregatik Gasteizko Gobernuak kritikatzen dute ez duelako guztien interes publikoaren alde egin. Ba al dute arrazoirik garraiolaria autonomo horiek? Ikuspegi sindikaletik edukiko dute. Dena den, Gasteizko Gobernuak men egiten dion egungo eredu ekonomiko erabat kapitalista da gailentzen dena. Negozioa egitea nagusitzen da.

Juan Mari Arregi

Txortan hitzaren jatorriaren bila

JOXE ARANZABALI (www.goiena.net/blogak/faroa) anonimo bat iritsi zaio txortan hitzaren jatorri ingelesa azalduz. Egia den ezin jakin, baina Aranzabalek dioen moduan grazia badu. Anonimoak azaltzen du Euskal Herriko arrantzaleak urrutira joanda denbora askoan etxera etorri gabe nola ibiltzen ziren eta batzuk nola prostituzio etxeetara joaten ziren; ondoren haxe: "Eta denpora gitxi eukelako alde batetik, eta diruaz be ezebizelako franko bestetik, hango emakumin oferti haxe zan: 'Short Time'. Hori gure gixonantzako 'txortan' zan".

Juan Luis Zabalak eta beste norbaitek diotenez berriz, Azkoitian alpagatak josteari deitzen zitzaion txortan egitea. Harrezkero hitz horrek izan duen eboluzioa, batek daki.

Anjel Lertxundik aldiz hari honi tira dio: xorta, edo ur-tanta, hazi-tanta. Sustatu.com-en dago informazio guztia.

Zine aretoetako euskarazko filmak egutegi bakarrean eta sarean

ARKADIA EUSKAL ONTZIA taldeak hartu du lan hori eta Google Calender bidez, oraingo urte bukaera arte euskaraz ikusi ahal izango diren zinema emankizunen egutegia sortu du. Telebistako euskarazko filmeen zein bikoiztutako-en egutegia ere laster egingo dute.

Helbidea: <http://arkadiaeuskalontzia.iespana.es>

Emun-ek 10 urte

1997AN, Eskoriatzako Irakasle Eskolaren eskutik sortu zen Emun, lana euskalduntzeko kooperatiba. Gaur egun 120 euskara plan ditu abian eta 91 pertsona ari da lan horretan, horietatik 77 hizkuntz teknikariak. Hamargarren urteurrena dela-eta egingo dituzten ekitaldien berri aste honetan eman-go dute. Hala ere, hona aurrera dezakeguna:

✓ Urriak 9, Arantzazu (Oñati): *Motibazioa eta hizkuntza normalizazioa* izeneko jardunaldia izango da. Honakoak hizlariak: Peter Macintyre (Kanada), Ferrán Suay (Valentzia) eta Euskal Herrikoak Joxpi Irastortza, Alex Mungia, Xabier Elortza eta Iñaki Eizmendi.

✓ Urriak 24, Arrasate: 10. urteurrena ospatzeko ekitaldi nagusia egingo dute.

BAHEA

Miquel Gros i Lladosek Berrian esanak: "(...) Hamabost urteotan, euskaldunen kopurua %10etik %12ra igo da. Kanpotik begiratuta, gutxiegi ematen du, baina horrek esan nahi du bost mendeko joerarekin hautsi egin dela. Gazteen artean, gainera, %20koa da kopurua, eta lehen hezkuntzan dauden artean, %25ekoa. Ezerk ez du erakusten eboluzio hori geratu egingo dela. Are gehiago, uste dut gero eta jende gehiagok ikasiko duela euskaraz, ohartuko delako Nafarroako kultur ondare oinarritzakoa dela. Baina bakar-bakarrik oraingo erritmoari eutsita, 25 urte barru nafarren %35-40 euskaldunak izango dira".



Ondarre baserria

20214 Segura (Gipuzkoa) Tel.: 943 801684

e-posta: ondarre@hispavista.com www.acvmultimedia.com/ondarre

XABIER LETONA

MALTZAGATIK

Eskubide zibilen zampaketa integratu da

RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

ZIGOR ZEHATZEI buruz ez da aipamenik, baina 18/98 auzikoei aspaldian oso barneratua dute zigor gogorrak izango direla. Eskaerak hala ziren eta Auzitegi Nazionalan, halako ezpaletik halako enborra. Are gehiago bizi den ekintza-erantzun zurrunbilo geraezinean.

Udalbiltza auzian ere fiskalak 10 eta 15 urte bitarteko espetxe zigor eskaerak egin ditu, Udalbiltza ETak sortu zuela argudiatuz.

Hemeroteka eta euskal politikaren jarraipen xumeena egiten duenak ere, ordean, jakin badaki Lizarra-Garaziko Hitzarmenaren ondoren sortu zela alderdi abertzale guztien bultzadaz, 1999an.

Egia da orduko su-etenaren apurketaren ondoren, Udalbiltza zatitu egin zela eta ezker abertzalearen adarrak Udalbiden bildu zenak –nagusiki EAJ eta EAKo hautetsiak– baino protagonismo handiagoa eman ziola Udalbiltza izenari. Orduko ezker abertzalearen Udalbiltzak, gainera, begi bistako datu guztien aurrean publikoki ukatu egiten zuen Udalbiltzan zatiketarik zegoenik.

PPren agintaldian ETaren aurkako borroka aitzaki, ezker abertzalea bereziki, baina oro har abertzaletasun guztia kriminalizatu zenean, hasi zen apurkako aldaketa zitala: irudiaren ikuspegitik, gobernu totalitario baten agintaldiko neurriak zirenak zuzenbide estatuaren ohiko dinamikan integratzea lortu da. Ez du esan gura euskal herritarren gehiengoak onartzen dituenik, ikuspegi horren kontrako adierazle asko aipa baitaiteke, baina bai euskal politikaren zurrunbiloan laugarren edo bosgarren armailean geratu direla. Estatuak neurri totalitario asko bere ohikotasunean integratzeko duen ahalmena erakusten du;



Joan den igandean 18/98 auzikoei Altsasu eta Urdiaintean diren zelaietan antolatutako elkartasun festa.

errepresio ikusmolde horren aurka dauden gizarte taldeek, aldiz, unean uneko erantzun bateratuak eman ditzakete, baina ez kontrako erantzun iraunkorrik. Su-eten garaian negoziatioak irtenbidea lagunduko zuelakoan eta konfrontazio egoeran bakoitzak bere mastari eusten diolako.

EGUNKARIA AUZIAN Dignidad y Justicia ordezkatzen duen akusazioak 12 eta 14 urte bitarteko espetxe eskaera egin du. Fiskalak aurrean bertan auzia ixteko egin zuen eskaerarekin guztiz neurri kontrajarria, baina Auzitegi Nazionalak lasai bideratzen duena. Eskaera handia, fiskalaren eskari eza orekatzeko. Ondoren, epaiketaren hasierarekin bat, presio mediatikoa dator eta, azkenik, epaia. Beste auzi ospetsu askotan errepikatu den eskema da, eta badira salbuespenak, baina zigor sare horrek normalean beti harrapatzen du jendea bere baitan.

Euskal Herrian izan den erantzun zabal eta handienetakoa ekarri zuen *Egunkaria*-ren itxiera operazioak. Auzi erraldoi hauetako bakoitzak bere ezaugarriak ditu eta guztietan ardatza eskubide zibilen zampaketa bada ere, bakoitzak bere sinbologia biltzen du bere baitan. Nagusiki sinbologia horregatik –euskarazko

egunkaria eta pertsonak– lortu zuen erantzun maila hura *Egunkaria*-ren itxierak. Estatuak sinbologia horren guztia epaiketa nola kudeatzen duen ikusiko dugu datozen hilabeteetan.

GARA-REN su-etenari buruzko argitalpenak ezaguna zen bertsioa txukundu eta ordenatu du, ENAMen ikusmoldea ezagutzeko beharrezko

dokumentua osatuz. Jarreretan oso posible da esaten diren asko egiak izatea, bere garaian askotan ikusi genituen bake prozesu batekin bateraezinak diren keinu eta neurriak Espainiako Gobernuan. Baina ez du lortzen apurketari buruzko bertsio zehatza eskaintzea, behintzat edukien alorrari dagokionez.

Adibide bat: Loiolako elkarriketen apurketaren kontaketa oso laburra da eta ez die erantzuten ez EAJtik ezta Espainiako Gobernutik –*El Pais*-en orrietatik– ez ofizialki eman diren arrazoiei. Hauen esanetan, lurraldetasunaren gainean behin-behineko akordioa erdietsi ondoren, Nafarroan egin beharreko erreferenduma dela eta, PSNk Hegoaldeko autonomia bakararen aldeko jarrera defendatzeko konpromisoa hartzea nahi zuen Batasunak. Hor ahipa egin zen akordio aukera. *Gara*-k azaltzen duenez, Euskal Herriaren erabaki ahalmena eta lurralde egituraketari buruzko bi borradore idaztea lortu zen, baina akordioa hobeto lotu asmoz, Batasuneko ordezkariak zehaztasun handiagoko dokumentua eskatu zutenean, EAJk eta PSOEek uko egin zioten. Nola baloratu egoera borradoreen edukia ezagutzeko aukera izan gabe eta Batasunak eskatzen zituen zehaztasunak zeintzuk ziren ezagutu gabe?